



## Hotzak eta euriak baldintzatu zuten Duatloia

Aurreko larunbatean egin zen lehen edizioa eta antolatzaileak dagoeneko 2026ra begira jarrita daude / 12-13

AIURRI

## Gertu da Euskaraldia

Izena emateko aukera zabalik dago Euskaraldia.eus webgunean / 2-3

**A15 eta N1 errepideen arteko lotunea aurkeztu du Aldundiak; Udalak herri-bilera deitu du hilaren 25erako / 8**

**Urumeako gune eolikoaren aurka egoteko arrazoiak azaldu zituzten Andoainen / 10-11**

### euskara bada errenta

**ERRENTA  
AITORPENA  
EUSKARAZ**

**MARTXOAREN 31TIK  
AUTOLIKIDAZIOA  
ONARTZERAKOAN,  
SAKATU EUSKARAREN  
AUKERA**



Informazio gehiago:  
[www.andoaindarraeuskaraz.eus](http://www.andoaindarraeuskaraz.eus)



ANDOAINO UDALA  
Euskararen Normalizazioaren Lanak

2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA

# EUSKARALDIA

*Elkar mugituz  
egingo dugu*



**AHOBIZI,**  
**BELARRIPREST,**  
zein izango da zure  
rola maiatzaren  
15etik 25era?

**Bat egin  
EUSKARALDIAREKIN!**



# Hemen da hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa erraldoia

Martxoaren 15ean ireki zen Euskaraldian izena emateko aukera: maiatzaren bigarren hamabostaldian egingo da ariketa masiboa, laugarrenez. Pixkanaka, antolatzen hasiak dira herrietako batzordeak



## Erredakzioa ANDOAIN

Udaberria iritsi aurreko egunetan zabaldu da aurtengo Euskaraldian izena emateko aukera:

maiatzaren 15etik hasita, hamaika eguneko iraupenarekin, maiatzaren 25era bitarte iraungo du hizkuntza-ohituretan era-

giteko gai den ariketa masiboak. Ezagutzen baino, erabileran jarri nahi du begirada hitzordeak, eta horren sustapena modu

eraginkorrean egiteko tresna baliagarria delakoan, bertan parte hartzeko deia zabaldu dute Euskal Herri osora.

Taupako lehendakaria da Irati Iciar eta, bere ustez, erabilerarentzat mesedegarri diren arau sozial berriak gizarteratzea eta errotzea lortu du Euskaraldiak, aurreko edizioetan. Bada, aurtengoan ere, martxa horri eusteko asmoz, erronkari erantzuteko gonbita luzatu du eragileak, "arnas luzeko" ariketaren parte izateko, alegia: "Edozein ohitura aldatzea ez da erraza, are gehiago hizkuntza-ohiturak direnean, baina, apurka-apurka, edizioz edizio, erabileran jauzi garrantzitsuak ekarri ditu".

## Txapa, ikusgarritasuna emateko

Txapa paparrean jantzi aurretik, ordea, ezinbestekoa da rola aukeratzea. Non sentitzen zara erosoan, irakurle? Zein da zure aurtengo erronka, Euskaraldia-ri begira? Ba al dakizu zein proposamen dauden aukeran laugarren edizio honetan?

Adi! Gaitasuna baino, jokabidea zein borondatea hartu behar omen dira kontuan, antolatzaileen esanetan, txapa aukeratzeko. Aski ezagunak izango zaizkizun bi txapak izango dira 2025ean ere: *ahobizi* eta *belarriprest*.

Bizitzako esparru guztietan euskaraz arituko da *ahobizi* txapa jartzen duenak, posible den guztietan, ahal den guztiekin. Horrela, inguruko harreman-sareetan, hizkuntza-praktiketan eragitea izango du xede, besteak beste, *ahobizi* rola aukeratzeko duenak, euskaraz ulertzen duten guztiekin hala egingo baitu uneoro. Bestalde, aldi-

ro, euskaraz norekin eta noiz hitz egin erabakiko du *belarriprest* rolean parte hartu nahi duenak: elkarrizketa euskaraz izateko prestutasuna agertzen duenak ipiniko du *belarriprest* txapa.

Euskaraldiko lantaldearen iritziz, "ezinbestekoa" da ariketak irauten duen 11 egunetan txapa soinean erabiltzea, ikusgarritasunaren mesedetan. Erronka, baina, ez da hor amaitzen, abiapuntu moduan ulertzen baitute Euskaraldiako antolakuntzako kideek, hamabigarren egunetik aurrera ere, norik bere erronkak ipintzen jarrai dezan, hizkuntza-ohiturak eraldatzeko bidean. Izan ere, besteak beste, estres linguistikoari aurre egitea du helburu egitasmoak, hau da, pertsona elebidun batek, ezezagunen aurrean, hizkuntza gutxiagotua hobesteak ekartzen dion tentsioa ekiditeko erreminta da txapa. Hori horrela, herrietako batzordeen ardura izango da txapen banaketa egitea. Bi herrien kasuan, martxan dira, jada, dinamizazio-bilerak. Hori horrela, datozen egunotan jakinaraziko dira, bai Andoainen, bai Urnietan, Euskaraldiaren bueltan antolatuko diren hitzordeak.

## Alde egotetik, alde egitera

"Euskararen alde egotetik, euskararen alde egitera pasatzeko jauzia emateko ariketa" da Goiatz Urkijo Euskaraldiko koordinatzaile nagusiarentzat hizkuntza-ariketa erraldoia. Txapa jartzetik harago, beraz, hizkuntzarekiko ardura izatea eskatzen duen proposamena da Euskaraldia: hausnarketa dakar, baita arduraren hartzea ere. Lehen pausoa izena ematea dela dio Urkijok, Euskaraldiaren web orrialdean dagoen galdetegia beteta.



Euskaraldia

**EGIN KLIK!**  
Atal berezia  
webgunean

**aiurri.eus**

## TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA

**BERE  
BURUA  
JAN ZUEN  
PLANETA**



## IRITZIA

MARCE GARCIA STOP DESAHUCIOS - ETXEGABETZEAK STOP GIPUZKOA

## Okupazioa ote da etxebizitza-arazorik handiena?

Otsailaren amaieran, okupazioaren gaiari buruzko eztabaida tentsoa izan zen Eusko Legebiltzarrean, eta horrek agerian uzten ditu ezkerren eta eskuinaren arteko aldeak. Ez dago egun bakar bat komunikabideek okupazioaren arazoa Espainiako Estatuan den etxebizitza-arazo nagusi gisa tratatzen ez dutena. Baina benetan horrela da? Edo kolektibo eta erakunde jakin batzuek hala aurkezteko duten interesari erantzuten dio?

Gaia datuekin aztertuko dugu: etxebizitza-okupazioengatik salaketek %7,4 egin dute gora 2024an Espainian, eta Segurtasun Indarrek 16.426 gertakariren berri izan dute, etxebizitzaren usurpazio-delitu ohikoenak eta bortxatze-delitu larrienak barne. Herrialde katalanak buru mantentzen dira, 7.009 kasu aipatzen baititu, hau da, guztizkoaren %42.

Lehenengo gai nagusia da datu horiek ez dituztela bereizten usurpazioa eta bizilekua bortxatzea. Bien arteko aldea garrantzitsua da, eta honako honetan oinarritzen da: usurpazioa abandonatutzat jo dezakegun etxebizitza batena da, eta bizileku bortxaketa, berriz, bigarren bizileku edo sasoiko etxebizitza baten gainekoa

izan ohi da, eta bai erantzun penala bai jarduketa judiziala eta poliziala oso desberdinak dira kasu batean eta bestean.

Bizilekua bortxatzearen kasuan, delitu astuna da, gaitzespen penala duena eta poliziak berehala irtenarazten duena; abandonatutako etxebizitza usurpatzean, aldiz, bide penaletik edo zibiletik joan daiteke, eta erantzun judiziala eta poliziala aldatu egingo da etxebizitza usurpatzen duenaren kalteberatasunaren eta epaitegien saturazioaren arabera.

Bigarren gai nagusia da, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren datuen arabera, azken urteko okupazio guztietatik kasuen % 0,85 baino ez zirela izan bizileku bortxaketak, hau da, erosketak egitera irten eta etxea okupatu dioten emakumearena bezalako kasu gordin horietakoak, hedabideetan hainbatetan ikusten ditugunak; horrenbestez, azken urtean okupazioengatik salatutako kasuen % 99,15 jabeek abandonatutako etxebizitzaren usurpazioetatik zetozen.

Hori berresteko, Juntseko ordezkari batek, Espainiako eta euskal eskuineko gainerakoekin batera okupatzaile guztiak

(usurpatzaileak) lehenbailehen aterarazteko arauen sustatzaile handietako batek onartu du okupazio-usurpazio kasuen % 96 banku eta funtsen etxebizitza hutsei dagozkiela.

Beraz, datu ofizialekin behar bezala frogatuta dago okupazioaren «arazo handiak» bankuen eta beren pisu okupatuak husteko funtsen beharrari erantzuten diola, horiek saldu ahal izateko, eta herrialde honetako eskuinak duen jabetza mugagaberako eskubidearen kontzeptua defendatzen duela, baita abandonatutako higiezinaren kasuan ere.

Lotsagarria da komunikabide, alderdi politiko eta gaizki informatuta eta manipulaturatuta dauden herritar askok banketxeen zerbitzura jardutea, gure pentsioen itsulapikoko diru publikoarekin erreskatatu genituen banku horiexen zerbitzura; eta erreskatetik ez digute ezer itzuli, onurak murrizten dizkiguten bitartean. Milaka familia etxetik legez kontra bota zituzten bankuak dira, gaur egun erabat frogatutako abusuzko klausulak erabiliz, hala nola mugaeguneratze aurreratua, zoru-klausulak, gehiegizko berandutze-interesak eta abar. Sareb

sozietateari eta putre-funtsei etxebizitza horiek oparitu zizkieten banku berberak, haiekin are gehiago espekulatu zezaten.

Eskuineko alderdiekin batera, gureak diren etxebizitza horietan bizi diren familia kalteberak nola kanporatu pentsatzen urteak daramatzaten bankuak.

Sareb sozietatea eta banku eta funtsen esku dauden etxebizitzak gureak dira, eta ez dut uste banku bat bera ere ausartuko denik kontrakoa esatera, haien aurkako frogak izugarriak direlako eta gehienek porrotera joan behar zutelako legez kanpoko ekintzengatik.

Horregatik, beren hedabide eta alderdi kideak bitartekari gisa erabiltzen dituzte, komeni zaizkien legeak egiten eta ahalik eta lasterren berreskuratzen saiatzeko.

Alderdi eta herritarrok bat egingo bagenu herri honetako higiezinaren benetako errudunek lapurtutakoa itzul diezaguten, ez ginatke egoera horretan egongo, baina, beste gai batzuekin egiten duten bezala, entretzenituta gauzkate, beste alde batera begira, errealitateaz ez ohartzeko.

60.000 milioi eurorekin konponduko lirerateke etxebizitza-arazoak, baina inork ez dauka adorerik hori

bankuei eskatzeko, ezta irabazi historikoak dituztenean ere.

Gai honekin daukagun beste arazoa da Justiziak kasu gordinen aurrean duen erantzun-denborena; izan ere, kasu horiek badaude, eta ezin dira babesik gabe geratu. Auzitegiek eta administrazioek argi eta garbi bereizi behar dituzte, eta erantzun egokia eman behar dute egiaztatutako zaugarritasun-egoeran dauden familiak tartean daudenean, baita gaur egun inkiokupazioa esaten zaionetan ere. Horretarako, okupa profesionalen kasuak eta benetako kalteberatasun-egoeran dauden familien kasuak bereizi behar dituzte, eta kontuan hartu behar dute maizterren eta jabeen kalteberatasun-egoera, alokairuen dirua behar izan baitezakete maileguak eta etxebizitzaren gastuak ordaintzeko.

Informazioa eta datu errealak, gezurrei aurre egiteko.

**BANKU-FUNTSEN  
ESKU DAUDEN ETXEAK  
GUREAK DIRA;  
KONTRAKOA ESATERA  
EZ DIRA AUSARTUKO**



Aita Larramendi kalean nabarmena zen sutearen ondorioz sorturiko kea. AIURRI

# Egundoko ezustekoa hartu zuten bizilagunek

Aurreko ostiralean, arratsaldeko laurak pasatxo zirenean, sutea piztu zen Aita Larramendi kaleko 26. zenbakian. Bigarren solairuko sukalde batean sortu zen, eta kea berehala barreiatu zen eraikin osora. Hainbat bizilagun artatu zituzten kea arnasteagatik

## Erredakzioa ANDOAIN

Bat-batean, keak inguratuta, arnasteko nahikoa airerik gabe, bizilagun batek baino gehiagok estu ikusi zuen bere burua. Ostiral arratsaldea zen eta, Aita Larramendi kaleko 26. zenbaki-ko bigarren solairuan piztutako sutearen ondorioz, kea eraikin osora barreiatu zen. Kalera begira, agerikoa zen kea. Eraikinaren barnealdean, behetik gorantz barreiatu zen. Egoera horretan, bat baino gehiago balkoi-ira irten zen aire garbia arnastera. Baina balkoian ere estuasunak medio, suhiltzaileek garabiaren laguntzarekin jaitsi zituzten kalera. Ordurako sutearen aurkako protokoloa martxan zegoen. Kalean bertan ziren udaltzainak, ertzainak, suhiltzaileak eta anbulantzietak sorosleak. Hainbat bizilagun artatu zituzten, kea arnastuta. Ezusteko latza, zorionez, aparteko kalterik gabe bukatu zena. Hori bai, bizilagunek ez dute berehalakoan ahaztuko arratsalde horretan bizitakoa.



Suhiltzaile bat egoerari aurre egiteko prestatzen ari zen unea. AIURRI

## Bat-bateko erantzuna



Hainbat bizilagun artatu zituzten, kalean bertan. AIURRI

**Artatze-gunea, kalean bertan** Aita Larramendi kalearen kanpoaldean artatu zituzten bizilagunak. Anbulantzia bat baino gehiago hurbildu zen eta, irudian ikusten denez, ez ziren gutxi bertaratu ziren sorosleak.



Suhiltzaileak, eraikinean sartzeko prest. AIURRI

**Suteen aurkako protokoloa** Suhiltzaileen garabia baliatu zuten hainbat bizilagun balkoietatik ateratzeko. Era berean, sutea piztu zen eremura sartu ziren. Sukalde batean piztu zen sutea eta barruraino sartu ziren suhiltzaileak.



Aita Larramendi kalea, trafikora itxira. AIURRI

**Trafikoa moztu zuten** Garabia kalearen erdian jarri eta bertarik hasi ziren laguntza eskean zeuden herritarrak erreskatatzen. Suhiltzaileak lanean aritu ziren bitartean, trafikoa Martin Ugalde kaletik bideratu zuten.

## Barrikotea, Hogar Extremeño

Ia ehun lagun bildu zituzten Andoingo Hogar Extremeño elkartearen, aurreko larunbatean, Extremadurako eta Euskal Herriko jakiak uzrtatu zituen barrikotean. Menua bikaina zen: Extremadurako hestekien dastaketa, txorixoa sagardoarekin, kroketa ezberdinak, txuleta eta Extremadurako gozosen dastaketa. Eta, nola ez, euskal sagardoa.



HOGAR EXTREMEÑO ELKARTEA



HOGAR EXTREMEÑO ELKARTEA



Jendetsuak izan ohi dira bilkurak. AIURRI

## "Su artean" ekimenaren hitzordu berria, Irunberrin

Ukraina, Ekuador eta Euskal Herriko jaki goxoak dastatzeko aukera izan zen aurreko astean

### Erredakzioa ANDOAIN

Ongi Etorri Eskolara elkarteak arrakasta handiz darrai "Su artean Gure artean" ekimena aurkezten. Izenak aipatzen hasita, Ibtissam Ben Ayouch, Olga Manko, Juli Aizpurua, Mila

Aizpurua, Claudia Desayes eta Marcela Bolaños aritu ziren sukaldari-lanetan. Eta, hitzordua girotzeko, Elisabet Gallo akordeoilariak eta Edurne Gaston klarinete-jotzaileak hainbat musika-pieza jo zituzten.



Irunberrin lanean aritu zen sukaldari taldea. AIURRI



Jon Zulueta. EH BILDU

## Jon Zulueta, Gipuzkoako EH Bilduko zuzendaritzan

Gipuzkoan alderdia bideratuko duten zazpi kideetako bat da andoaindarra

### Erredakzioa ANDOAIN

Nekane Zinkunegi izango da arduradun politikoa eta Udalgintzako ardura Jon Zulueta andoaindarren esku dago. Ezaguna zaio alor hori zortzi urtez zinegotzi-lanetan aritu baita. Lau urtez, Gobernu taldean izan zen, eta, beste lau urtez, oposizioan. Bozaramaile-lanetan aritu zen eta plenoetan bere posizioak defendatzeko trebezia aparta erakutsi zuen. Andoingo enpresa batean ari zen lanean, EH Bilduko ardurak betetzeko hautatu duten arte.



Andoain eta Aduna arteko mugan jarri dute seinaleztapena. AIURRI

## Handitu egin da joan-etorria, Adunaranzko pabiloietara

Andoaindik izango da hurrengo hilabeteetan Adunako lantoki eta pabiloi askoren sarbidea

### Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko astean abiatu ziren Adunako erribera zeharkatzen duen GI-3610 errepidearen eraberritze-lanak. Horrek eragin zuzena izan du Andoain aldeko trafikoan, bereziki, Sorabilla aldean. Villabona-Zizurkil aldetik, Todo-todo supermerkatuak gertu dagoen Elkar enpresa parean abiatu dira lanak. Obraren arduradunek lanik zailena hori dela aurrakusi dute eta, hilabete epean, errepide zati hori erabat moztuta izango da.

### Industriguneetara sarbidea

Zer egin, bada, Haizpea eta Erribera industriaguneko enpresetara iristeko? Adunako Udalak zabaldu duen Bandoaren arabera, joan-etorri horiek Sorabilla-Andoain aldetik egitea da era-

ginkorra. Halaber, inguru hartako enpresen bezeroei ere jakinarazpena egiteko aholkatu diete: "Zuen bezeroei ere jakinaraztea eskertuko genuke, guztion artean arinago izan dadin". Oinezkoen kasuan, Amasa-Villabona aldetik hurbiltzen diren langileei oinezko pasabidea egokituko zaiela adierazi dute.

### Uparan industrigunea

Todo-todo eta inguruko enpresetara sartu-irteerak Villabonatik egin ahal izango dira.

**GI-3610 ERABERRITZEKO ERREPIDE ZATI BAT ERABAT ITXITA DAGO, ELKAR PAREAN**



Ikasle taldea, ikastetxearen atarian. MAGALE

## Ikastetxeko hamahiru ikasle, European, praktiketan

Salesiar ikastetxeko ikasle gehienak otsailaren amaieran joan ziren eta maiatzean itzuliko dira

### Aiurri komunitatea

Salestarrak Magale ikastetxea  
URNIETA

Erasmus+ programaren laguntza duten Erdi eta Goi Mailako ikasleak dira. Nazioarteko programan sartzeko aurkeztu ziren hainbat hautagaiaren artean aukeratu dira. Salesianos Urnieta 13 ikasle Lanbide Heziketako bigarren mailako enpresa praktikak egiten ari dira atzerrian, ERASMUS+ programaren bitartez. Aurten, Bulgariako, Maltako, Italiako, Poloniako eta Portugalgo enpresetan praktikak egiteko aukera izaten ari dira Erdi Mailako eta Goi Mailako ikasleak.

Programan parte hartzen dutenen artean, ikasle bat Erdi Mailakoa da, eta gainerakoak Goi Mailakoak dira. Horietako zortzi Erasmus+ek Urnieta 13 ikasleentzako Salesarrak zentroari eman dizkion beka propioekin joan dira, eta bost gure zentroa parte den partzuergoen bekek lagunduta: Confebask eta Hetel-en bitartez, hain zuzen ere.

Aukeratutako herrialdeek aukerarikoa eskaintzen dituzte hainbat sektoretan, hala nola Diseinu Grafikoan, Automatizazio eta Robotika Industrialean eta Sistema Elektrotekniko Automatizatuetan. Horri esker, beraz, ikasleek beren ezagutzak nazioarteko ingurune batean aplikatu ahal izango dituzte.

“Pozik” eta esperientzia bizitzeko “gogoz”, ikasleak beren nazioarteko egonaldietan egongo dira hiru hilabetez, Lantokiko Prestakuntza (LP) ordezkatzen duen Dual Orokorra egiten. Gehienak otsailaren amaieran joan ziren eta maiatzeko azken egunetan itzuliko dira.

### ERASMUS+ programaren aldeko apustua

Salesianos Urnieta ikastetxeak ikasleen nazioartekotzearen aldeko apustua egiten jarraitzen du; datozen urteetan ere nazioarteko eskaintza zabaltzen jarraitzeko etengabeko lanean ari dira.

## IRITZIA

ANDOAIN-PALESTINA EKIMENA

## Andoain-Palestina ekimena

Andoaindar talde bat elkartu da honako adierazpena egiteko. Andoain herri solidarioa izanik, palestinar herriarekiko sentibiltate berezia erakutsi dute herritarrek. Palestinak pairatzen duen egoera lazgarria ez da orain dela urte pare bat hasi, baizik eta indar kolonialek bertako biztanleen iritziaren gaineretik Israelgo estatua asmatu ostean, Israelgo estatuak palestinarren aurkako genozidio saiakerarekin batera.

Gatazka horrek milaka herritarren heriotza eragin du urte luze hauetan, nagusiki haurrak. Baina ez hori bakarrik; baita milioika desplazatu, giza hondamendia, eta nazioarteko legegidiaren aurkako jardun iraunkorra ere.

Sarraski honen aurrean ezin dugu isilik egon, horregatik gure aletxoak jarri nahi dugu basakeria hau eten dadin eskatzeko, gure eskuetan dagoen guztia eginez. Hori guztia dela eta, Andoaindik elkartu gara ondoko helburu hauek lortzeko asmoz:

- Palestinaren aurkako genozidioa gelditzeko eskatzea.
- Palestinar herriaren egungo egoera ezagutzera ematea.
- Israelgo estatuak eragindako sarraski basatia salatzea.
- Palestinar herriarekiko babesa saretzea.
- Hondamendi honi aurre egiteko babes ekonomikoa zabaltzea.
- Produktu israeldarrei boikota eskatzea.

Genozidioa Stop! Palestina aurrera!

**"SARRASKI HONEN AURREAN EZIN DUGU ISILIK EGON, ETA GURE ALETXOA JARRI NAHI DUGU"**



Sarri eta Osinaga. AITA LARRAMENDI IKASTOLA

## Sarrionandia eta Osinaga, Batxilergoko ikasleekin

“Katuen kontuak” aurkeztera hurbildu ziren Andoaingo Aita Larramendi ikastolara

### Aiurri komunitatea

Aita Larramendi ikastola  
ANDOAIN

Inauterietako ajea pasatzeko bisita berezia izan dute Batxilergoko bigarren mailako ikasleek, “Katuen kontuak” emanaldia eskaintzera etorri baitzaizkien Ines Osinaga kantari-musikaria eta Joseba Sarrionandia idazlea. Bigarren urtez jarraian egindako ikuskizunean, duela

ia hamarkada bat bi artistek elkarrekin osatutako diskoa abiapuntu izan dute: Sarrionandiak kantuen letren nondik norakoak azaldu ditu eta segidan Osinagak kantuaren sorkuntza-prozesuan sakondu eta kantuak zuzenekoan jo ditu. Ordu eta erdiko emanaldi berezia eskaini dute: hurbilekoa, emankorra eta atsegina. Ikasleek ere oso modu positiboan baloratu dute.

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa



ORAIN GIPUZKOA



"A-15 errepidearen enborra N-I errepidearen eta Oria ibaiaren gainean egongo da, 70 metroko luzeran. Egitura 8 pilaretan bermatuta dago eta 595m-ko luzera du. Ondoren, bigarren egitura kurbatu batek N-I errepidea eta Oria ibaia gurutzatzen ditu berriro, eta altuera jaisten doa, N-I errepideko Tolosa-Lasarte galtzadaren ondoko zabalgunean lurreratu arte. Egitura honek 5 pila eta 215 metroko luzera ditu". Lazoaren egitura, neurriak eta deskribapena modu horretan jaso du Gipuzkoako Foru Aldundiak. IREKI

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

A15 eta N1 errepideen arteko lotunea egitea premiazkoa da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak berriro heldu dio gaiari. Lotu-nearen egitasmo berria aurkeztu zuen hedabideen aurrean, astelehen goizean. Felix Urkola Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako diputatuak deskribatu zuen pantailan ikusgai zuten argazki-muntaia: "Lazo itxura duen zubibidea izango da, 700 metro inguruko egitura bat, eta horrek onura nabarmena eragingo dio trafikoari. Trafikoa arintzeko eta auto-ilarak saihesteko, lotunea herrigunetik aldentzeko eta soluzio berriak auzuneei eskaintzeko". Ondoren zabaldu zuten oharrean, obrak iraun bitartean trafikoan izango duen eragin eskasa azpimarratu zuen: "Garrantzitsua da nabarmentzea obra egiten den bitartean trafikoan izango duen eragina oso txikia izango dela, jarduketaren zatirik handiena egitura berriak eraikitzea izango delako, egungo zirkulazioari eragin gabe". Oharrean ere aipatzen da honakoa, andoaindareei zuzendurikoa: "Planteamenduari esker, N-I errepidearen eta Andoaingo herrigunearen arteko interakzioa hobetu daiteke, inguruan eta auzoetan hobekuntzak proposatzeko atea irekiz".

# Lazoa jarri nahi diote aferari

Gipuzkoako Foru Aldundiako Bide Azpiegituretako Lansailak aterabidea eman nahi dio A15 eta N1 errepideen arteko lotuneari. C2 delako egitasmoaren bertsio berria aurkeztu du, lotunea Lasarte-Oriarantz urrunduz



Eider Mendoza Ahalduen Nagusia eta Felix Urkola Foru Diputatua. IREKIA

Oraingoz bada, aukeratzat hartu behar da. Xehetasunik ez baita ageri eta, argazki-muntaia-ri erreparatuta, Bazkardo aldean ez da trafikoa estaliko duen egituratik ikusten. Agerraldian adierazitakoaren arabera, hori gerorako utziko dela uler daiteke. Eta, Urkolaren adierazpenetatik ondoriozta daiteke bigarren fase hori Udalarekin batera egitea iradokitzen ari dela Aldundia.

Agerraldiari hasiera Eider Mendoza Ahalduen Nagusia eman zion. "Gipuzkoar guztien ongizate integrala" lortzea helburu duela adierazi zuen, hiru hitz errepikatuz: iraunkortasuna, segurtasuna eta erosotasuna. "Udalerriari eskaintzen diogun soluzio berri bat" dela adierazi zuen Mendozak.



Alkatea, otsailaren 27an. AIURRI

## Udalak ekitaldi irekia antolatu du

N1 eta A15 errepideen arteko lotunea egiteko egitasmoen alderaketa egitea eskatu zuen Andoaingo Udalak eta dokumentazio hori dagoeneko ikusgai dago Andoain.eus webgunean. Karpeta batean hainbat PDF dokumentu aurki daiteke. Lan teknikoa da eta hizkera jasoa gailentzen da dokumentazio osoan. "Bazkardon A-15 eta N-1 errepideen arteko lotunea eta N-1ak Andoainean dituen eraginak hobetzeko aukeren azterketa konparatiboa" izenburu du azterlanak eta Sestra Ingenieria y arquitectura etxeak egin du.

Alderaketa-lan hori jendaurrean aurkeztuko dute martxoaren 25ean (datorren asteartean), Bastero Kulturguneko ekitaldi-aretoan, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Gobernu taldeak egunean bertan eman zion erantzuna Aldundiaren iragarpenari: "Andoaingo Udalak eman asmo dituen pausoen berri izan du eta du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Eskua luzatzen diogu gai honi behin betiko irtenbidea modu adostuan eta herritarrekin batera emateko. Horretarako gure elkarlanerako borondatea berresten dugu".





Buruntzaldeko transmaribollo sareko kideetako batzuk. AIURRI

# “Erreferenteak sortzeko premia ikusi genuen, elkar ezagutzeko zein babesteko”

## BURUNTZALDEKO TRANSMARIBOLLOAK BETERRI-BURUNTZA

Lumakadaka Eguna antolatu du Buruntzaldeko transmaribollo sareak. Goizean hasita eta ordu txikietara bitarte, askotariko hitzorduak izango dira Andoainen, hilaren 29an

### Erredakzioa ESKUALDEA

Taldearen lehen urteurrena igaro berrikan, lehen Lumakadaka Eguna ospatuko du Buruntzaldeko transmaribolloen sareak hilaren 29an, Andoaingo gaztetxean. Hausnarketarako ez ezik, ospakizunerako tartea ere izango da prestatu duten egitarauan. “Buruntzaldea kuirra lumakadaka” lelopean, beren “lumaje ederrena” erakusteko prest dira.

**Zuen izenak iragartzen duen bezala, Buruntzaldea eskualdeko herrietako kideek osatzen duzue taldea.**

Bai, hala da, gure eskualdeko herri guztietako kideak daude

taldean. Egia da, batez ere, Herriko zein Andoaingo jendea dagoela, gehienbat; beharbada, bi herrien tamainak zerikusia izan dezake horretan. Dena dela, gainerako herrietako kideak ere badira. Garrantzitsua da hori, Buruntzaldea osoko ikuspegia kontuan hartzeko, toki guztietako errealitateen berri edukitzeko aukera ematen baitigu horrek.

**Orain urtebete batu zineten, lehen aldiz, gutxi gorabehera. Zerk bultzatuta?**

Joan den urteko otsailaren hasieran ekin genion saretzeari. Lasarte-Orian izan zen lehenengo bilera, bertako transmaribi-

hollo taldeak dinamizatuta. Erantzun ona jaso zuen deialdiak, ia herri guztietako kideak gerturatu baikin bertara, hogeitako edo. Hasteko, herri bakoitzeko aktibazio-maila eta baliabideak partekatu genituen, eta, ondoren, hausnarketa sakonagoetara jo genuen: “Zergatik eta zertarako behar dugu Buruntzaldeko transmaribollo sarea? Zer egin nahiko genuke?”. Gauzak horrela, urtebeteko bidea osatu berri du taldeak eta askotariko ekintzak egin ditugu, egun seinalatuetan. Espazio ez formalei ere garrantzia eman diegu, gure arteko harremanak estutze aldera.

### Eta, hori horrela, zergatik eta zertarako behar du Buruntzaldeak transmaribollo sarea?

Nor bere herritik, errealitatek etorri arren, badira partekatzen genituen zenbait kezka: komunitate baten falta sentitzen genuen, eta horrek bakardade sentazioa eragiten zuen. Auziari dagokionez, antolatu gabeko pertsonak eta herriak zeudela identifikatu genuen. Bestalde, inportantea iruditzen zitzaigun mugimendua deszentralizatzea, alegia, guretzat pisua du tokikotasunak, sexu-genero disidenteon aldarrikapenak hiriburutik harago ere entzun daitezkeen. Horregatik, erreferenteak sortzeko premia ikusi genuen, elkar ezagutzeko zein babesteko. Finean, komunitatea sortu nahi dugu, eskualde-sena egonkortzeko. Horrela, indarrak batuta, eragiteko gaitasuna biderkatu egiten da, proposamen eta ideiak partekatuz, eskubideak aldarrikatzen jarraituz, erakundeak interpelatuz eta abar.

Barrura begira ere ipini gara, taldea osatzen dugun kideontzat espazioa gozagarria izan dadin: sormenari zein aisialdiari lotutako ekintzei ere tokia eman diegu. Hortik sortzen da, esaterako, Lumakadaka Eguna. Nolanahi ere, beste hitzordu batzuk egin dira gure artean saretzen eta gozatzeko jarraitzeko, hala nola Bollotopaketan aurkezpena, Anita Doinelen “Me lo merezco” liburuaren aurkezpena...

**Zein da, eskualdeari begira, egiten duzuen irakurketa? Zein toki du kolektiboak zuen herrietan?**

Txikia, oso txikia. Eta, hain justu, hortik sortzen da elkartzeko beharra, indarrak batzeko. Bilerak eta kanpora begirako ekintza guztiak, aldiro, herri ezberdinetan izaten ahalegintzen gara, presentzia bermatzeko.

**Urtebeteko bidea egin berrikan, egun osoko egitaraua prestatu duzue, Andoaingo gaztetxean, martxoaren 29rako. Besteak beste, ikusgarritasuna lortzea al duzue xede?**

Hein batean, bai. Aste hauetan, adibidez, egunaren harira, pankartak eta kartelak ipini ditugu Buruntzaldea osoan, hemen gaudela, antolatuta gaudela esateko. Halere, martxoaren 29an eskualdetik harago ere jo nahi dugu, inguru eta esperientziak partekatzeko. Aurretik aipatu ditugun beharrak asetzeko aitzakia ere

badu egitaraua. Urte osoko lan-ketaren emaitza da eguna eta Andoaingo kaleak aldarriz eta lumaz betetzera goaz!

**Kolektiboarenganako gorroto-diskurtsoak biderkatzen ari diren sasoian, makina bat talde dago antolatuta Euskal Herrian. Mapa horren argazki orokorra egitea al da asmoa goizeko mahainguruan? Euskal Herriko esperientzia kuirrak ezagutzeko asmoz, hainbat txokotako taldeak etorriko dira gurera, “Tokian tokiko lumakadak” mahainguruan parte hartzeko. Lurraldetasunak garrantzia du hitzorduan, toki batetik bestera testuingurua aldatzeko dela ulertzen baitugu: Laudioko zein Baionako lagunek beren esperientzia partekatuko digute. Hala, Euskal Herriko taldeen artean elkarrizketa sustatu nahi dugu, konplizitatea sortu, problematikari erantzun kolektiboa emateko.**

**Gaztetxetik kanpo, kaleak hartzeko tartea ere hartuko duzue bazkaldu aurretik.**

Hori da, lehen esan dugun bezala, ikusgarritasuna eman nahi diogu kolektiboari. Gaztetxetik kanpo ere izango gara, Andoaingo kaleetan barrena, marianitadarekin, gure lumaje ederrena erakusteko prest!

**Arratsaldean jolaserako tartea izango da MerendOkarekin. Ospakizungiroan egonda ere, ba al da eragiterik?**

Jakina, eta nahita hartutako erabakia da. Modu askotan sortu daiteke azkura, baita ospakizun-giroan ere. Jolasa oinarri duen MerendOkak aukera emango digu kolektiboaren gaineko hausnarketak egiteko. Bide beretik doa gaueko eskaintza: jaia bai, borroka ere bai. Bi aldeak uztartu daitezke. Iluntzean, *performance* inprobisatua egingo du Tukanak, eta, 21:30etik aurrera, kontzertuak izango dira: Alu Zikinak, MJPQ, DJ Azkura...

**Izen-ematea itxi den arren, izango al da aukerarik egunean bertan hitzorduren batera gerturatzeko?**

Bai, goizeko zein arratsaldeko ekintzetara etortzeko aukera dago, baita gauekoetara ere, sarrera ordainduta. Sexu-genero disidenteok sortutako jaialdia dela azpimarratzen dugu, aurretik aipatutako helburuekin, eta ateak irekita izango ditugu bertara gerturatu nahi duen ororentzat. Hori bai, ez baldin badakizu egoten, EZ etorri!



Erramun Galparsoro, Ainhitze Kalonge eta Jose Manuel Muñoz, Euskalduna MTren egoitzan joan den ostegunean. AIURRI

# Urumeako bi egitasmoen aurka egoteko arrazoiak

“Urumeako Mendiak Bizirik” herri ekimeneko kideek hitzaldia egin zuten Euskalduna Mendigoizale Taldearen egoitzan, joan de ostegunean. Urumea bailaran proiektatuta dauden bi zentral eolikoek kalte ekologiko larriak eragingo lituzketela adierazi zuten

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Ainhitze Kalonge, Erramun Galparsoro eta Jose Manuel Muñozek hartu zuten hitza, “Urumeako Mendiak Bizirik” herri ekimena ordezkatzuz. Bi zentral eolikoek proiektuek zuzenean ukitzen dituzten Goizueta, Arano, Hernani eta Ereñotzuko herritarrek osatzen dute aipatu elkarteak; hain zuzen, Aranoko herritarrak dira Galparsoro eta

Muñoz, eta Pagoaga-Ereñotzukoa Kalonge.

Labur esanda, bi proiektuek eragin dute kezka bailarako hainbat herritarrengan, multinazional energetikoek sustaturikoak biak ere. Lehena, Ikatz Gane izenekoa da, eta Sevillan egoitza duen eta energia berriztagarrien sektorean lan egiten duen Enigma Green Power 26 S.L.U. da enpresa eskatzailea;

Endesa dago atzean. 33 Megabateko potentzia eragingo luke ten 200 metroko bost haize-sorgailu instalatzeko administrazio baimenaren eskaria egina dauka, iazko maiatzaren 23ko EHAA agertu zenez. Horixe da dagoen informazioa oraindik, “Urumeako Mendiak Bizirik” elkartekoek adierazi zuten, “nahiko enigmatikoa da proiektua, Hernani eta Aranoko lur sailak hartzen

dituela besterik ez dakigu, beren planoak aintzat hartuz gero”.

Erreka izenarekin Repsolek aurkeztu duen bigarren proiektuaren gainean informazio gehiago dagoela ziurtatu zuen Muñozek. “Lehenengo susmoa, baze torrela alegia, 2024an izan genuen, ingurugiroarekin lotutako inpaktuen ikerketak egiten dituen enpresa bateko langileak gora eta behera baitzebiltzan, Aranon. Handik gutxira, Repsoleko ordezkariak udaletxean agertu ziren, jarrera itsusiarekin, zera esanez: *loteria egokitu zai-zue proiektu honekin; herritarrekin errespetuz jokatzeko duen enpresa gara, eta nahi baduzue, frontoia estaliko dizuegu eta herri eskola eraiki*”.

Enpresaren jarrera horrek eragin zieten lehenengo haserrea, eta amorrua. “Herritar soil gisa, babesgabetutasuna sentitu dugu hasieratik. Enpresa pribatu baten eskutik jakin dugu proiektuaren nondik norakoa. Eta hasieratik proiektuaren aurka azaldu den Aranoko udalaren bitartez lortu dugu eskuartean daukagun informazioa. Goiko erakunde publikoetatik inor ez zaigu azaldu azalpen ofizialik ematera, eta are gutxiago adierazi digute gertuko herritarrekin saiatuko direnik kontsentsua lortzen, proiektuak aurrerabiderik ba ote duen ala ez ikusteko. Azken batean, argi geratzen da energia berriztagarrien gaiarekin dagoen planifikazio publiko eza. Dena esku pribatuetan uzten ari dira, eta, gainera, gaiak sakontzen hasten bazara, ohartzen zara politikariek enpresen interesen arabera hartzen dituztela erabakiak”.

Hiru hizlariek zehaztu zuten, bi proiektuek Hernaniko lur sailetan bat egiten dute; konkurrentzia edo lehia dago nonbait, eta horrexegatik, Repsolek (Erreka) Endesaren aurkako helegitea jarri du Balore-Merkatuaren Batzorde Nazionalan (CNMV).

**Egundoko lur-mugimenduak**

Oraingoz 800 orrialde dituen Erreka proiektuaren txostena daukatela eskuartean, eta hori goitik behera aztertu dutela baieztatu zuten hizlariek, Euskaldunaren egoitzan egindako hitzaldian. “Bere azterketatik atera dugun ondorio nagusia, begi bistakoa da: makrozentral eoliko baten aurrean gaudela. Madrilgo gobernuari dagokio

onartzeko eskumena, daukan dimentsioetatik (15 aerosorgailu eta 100 Megabatio) eta bi autonomia hartzen dituelako. Hain zuzen, hainbat herrietako lur eremuak eragingo die: Arano, Astigarraga, Berastegi, Elduain, Ereñotzu, Errenteria, Goizueta, Hernani, Oiartzun eta Urnieta-ri”.

Zehaztu zuten, zentral eoliko batean, kontuan hartu behar dira haize errote gain, bere inguruan eraiki behar den azpiegitura guztia; besteak beste, goi mendirako sarbidea, sortutako energia pilatzeko estazioa, energia hori garraiatzeko dorreak (goi-tentsioko linea), energia hori pilatzeko bigarren estazio edo transformadorea...

Txostenaren irakurketarekin, harridura handiena azpiegitura guzti hori eraikitzeko behar den lur mugimenduen zifrek eragin diela, aitortu zuten. “Zentrala eraikitzeko obrek Urumea bailaran txikizio galanta eragingo lukete”, adierazi zuten, eta zehaztapen hori egiteko, zenbait datu deskribatu zituzten. Hala nola, indusketa lanak (1,7 milioi m<sup>3</sup>), betelanak (milioi bat m<sup>3</sup>), zimentatziotarako hormigoia (15.000 m<sup>3</sup>), 15 aerosorgailuen zimentatziotarako hormigoia (11.000 m<sup>3</sup>), 68 ebakuazio dorreak (803 m<sup>3</sup>), zaborra edo lur sobrantak 700.000 m<sup>3</sup>). “Bitxikeria moduan, aipatu behar da sustantzia arriskutsuez zikindutako trapuekin ere egin dutela kalkulua (509 kg)”.

Estimazioarekin jarraituz gero, adierazi zuten soilik 15 aerosorgailuen eremuak, 15 futbol zelaien tamainako eremua hartuko lukeela. “Mendi, gain horiek eza gutzen dituenak badaki natur eremu txiki batez ari garela, eta beraz, ikaragarria dela zenbaterako lur okupazioa egingo luke ten”.

Sarbideari dagokionez, proiektuak Besabitik abiatzea dauka aurreikusita. “21 kilometroko mendi-pista egin nahi dute Besabitik hasi eta gorantz, sei zazpi metroko zabalerarekin. Halakorik gure inguruetan ez da ikusi sekula!”, esan zuen Galparsok.

Proiektua Urumeako mendietako bioaniztasunarentzat eta ekosistemarentzat kaltegarria izango litzatekeela uste izateko, beste zenbait alderdi aipatu zituzten. Besteak beste, hegaztien ztat traba izatea (beren korridore naturala baita bailara);



Ikusleak adi-adi hitzaldian. Aiurriren web orrian hitzaldi osoa, ikusgai. AIURRI

edota, Urumea ibaiaren kalitatea (mendi-gain horietatik jaitzen diren erreketako emaria jasotzen du). Aerosorgailuetatik gertu bizi diren giza komunitateen osasuna (estresa, nerbio-sisteman alterazioa...) ere ez dela libratzen, ohartarazi zuten. Gaur egun, ehun bat biztanle dituen Arano ere jende-gabetzen joango litzatekeela etorkizunean, aurreikusi zuten.

### Energia berriztagarriak, auzitan

Haizearen industriak azken aldian bizi duen zabalkundearen atzean negozioa dagoela beste ezereen gainetik, adierazi zuten Galparsorok. "Orain gutxi arte Repsol enpresa, edo Josu Jon Imaz bera, energia berriztagarrien negazionista eta erregai fosilen defendatzaile agertu zaizkigu, eta orain, kolpetik, beste inor baino ekologistako eta berdeago datozkigu! Hori sinetsi behar al dugu?"

Europar aplikatzen ari diren trantsizio energetikoaren politika erabat kontraesankorra dela gehitu zuten Galparsorok. "CO<sub>2</sub> isurketak murrizteko energia berriztagarriak sustatu nahi dira, baina hain justu, CO<sub>2</sub> aurre egiteko premiazkoak diren ekosistemak hondatu nahi dira. Energia berriztagarrien alde gaude, jakina, baina hori ez da bidea, eta datu errealek hori baieztatzen digute: isurtzen den CO<sub>2</sub> kopuruak igotzen segitzen du, nahiz eta energia berriztagarriak etengabe hazi".

### Mezu berezia mendizaleei

Azken aldian, erruz zabaltzen ari dira zentral eolikoaren hotsak gertuko mendi parajeetan, Uru-

meako aipatu bi horiez aparte, Buruntzan, Amasamendian, Goizueta-Lesakan (Domiko)...

Etorkizunean datorkigun errealitate horren aurrean, Jose Manuel Muñozek dei berezia luzatu zien mendizaleei. "Perretxikoak bezala sortzen ari dira proiektu eolikoak gure mendietan; oraindik ere etorriko zaizkigu gehiago ate joka. Andoango mendizaleen elkarrean gaudela, probestu nahi genuke dei berezia egiteko mendizaleei, sentiberak izan daitezten. Euskal Herriko mendiak industrializatzen ari zaizkigu abailan, izugarritzko eraldaketa datorkigu, eta beharbada, bukatzen ari zaigu gure inguruko mendi parajeetara igotzearen betiko ohitura, natur-gune eta arnagune birjinak topatzeko eta horiekin gozatzeko. Asko jota buzoiren edo gurutzeren bat topatu ohi ditugun tokietan, hormigoizko tonak eta tonak izango ditugu lasterrera. Espazio txiki batean bizi gara, eta hori izango da errealitatea. Edozein tontorrera edo mendibizkarrera igotzen garela ere, aerosorgailu erraldoiak ikusiko ditugu nonahi".

### Andoainen taldea osatzeko deia

Gertuko proiektu eolikoaren gainean informazioa jasotzeko eta sentsibilizazio kanpainak abian jartzeko, Andoainen talde bat osatzeko asmoa azaldu dute zenbait herritarrek. Horretarako, lehenbiziko bilera irekia antolatu dute Euskalduna Mendigoizale Taldearen egoitzan, martxoaren 25an, arratsaldeko 19:00etan. Herritar orori luzatu die gonbidapena.



Aerosorgailuak jarri nahi dituzten naturgunean txangoa egin zuten. URUMEAKO MENDIAK BIZIRIK ELKARTEA

## Aranon, egun osoko jaia

Urumeako Mendiak Bizirik" elkarteak ekitaldiz beteriko egun osoko jaia antolatu zuen Arano herrian, joan den larunbatean. Bailara horretako mendi gainetan proiektatuta dauden bi zentral eolikoek eragingo lituzketen kalte ekologikoen gainean sentsibilizazio kanpainaren baitan antolatu zuten jaia.

Egun euritsua suertatu arren, jende mordo bertaratu zen Aranora, eta giro polita zabaldu zen egunean barrena, bai Arano herritik gora kokatzen diren natur parajeetan egindako

txangoan, eta baita Arano bertan egindako ekitaldietan.

Horrela, goizeko 11:00etan "Vidas irrenovables" dokumentala proiektatu zuten, eta Francisco Javier Vaquero egilearekin solasaldia egin zuten ondoren.

12:30etan, mendi txangoa egin zuten, aerosorgailuak proiektatu dituzten natureremuetan barrena. 14:30etan, Burningo bordan, pintxoez eta saldaz gozatzeko aukera eduki zuten. Aranorako itzulera, kalejira alaitsuan egin zuten parte-hartzaileek, Joseba Tapia,

Izer eta Jon Mari eta Alabier trikitilariekin, eta "Mendiak bizirik! Horrela ez!" leloa zeraman pankartaren atzetik.

Azkenik, goian-behean euria egiten zuela eta, herriko ostatuaren aterpean, trikitilariak bigarren saioa egin zuten, eta horien ondoren, Aitor Mendiluze eta Julio Soto bertsolariak saioa gai librean egin zuten; bertso mordo kantatu zuten, energia berriztagarriak eta haize-erroten zentralak gaitzat hartuta.

Trikitilarien eta bertsolarien saioak, Aiurriren webgunean bideoz ikus litezke.



Aitor Mendiluze eta Julio Soto bertsotan, Aranoko herri-ostatuan. AIURRI

# "Buruan dugu bigarren edizioa antolatzea"

**KOLDO VELASCO** ZUMEATARRA TRIATLOI TALDEKO ORDEZKARIA

**DUATLOIA** Andoaingo Lehen Duatloia amaitu eta ordu gutxira Aiurriko erredakziora hurbildu da aurreko asteburuan bizi izandakoa azaltzera

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

**Lehen egunak igarota, zein hausnarketa egiten duzu lasterketaz eta esperientziak? Zein da burura datorrizun lehen pentsamendua?**

Lehen esperientzia izateko balorazio positiboa egiten dugu. Antzeman ditugu hobetu daitezkeen xehetasun batzuk eta horretan jarriko gara lanean datorren urteari begira.

**Lan handia egin behar izan duzue proba antolatzeko aurretik eta, zeresanik ez, azken astean zein egunean bertan.**

Ordu asko eman dugu, hainbat hilabetez. Eta egunean bertan goizeko 09:30etan ekin genion lanari eta gaueko 21:30etan amaitu genuen. Aurreko astea eromena izan zen, baina errazagoa izan da dena sortu dugun talde politarengatik. Alde batetik, klubean bertan. Eta, beste alde batetik, boluntarioekin batera. Proba burutu ahal izan genuen eta pozik gaude.

**Zenbatuta dituzue zenbat lagun behar izan zenituzten proba egin ahal izateko?**

Lantalde finkoan sei lagun gaude eta boluntarioak, denera, 80 izan dira. Bide-segurtasuna, dortsalen banaketa, kontsigna, lasterketa irekitzeko eta ixteko txirrindulariak... Probaren xehetasun guztiak betetzeko laguntza



Koldo Velasco. AIURRI

handia behar izan genuen, Udaltzaingoa eta Ertzaintza ahaztu gabe. Haiek guztiak ezinbestekoak izan ziren, bestela ezinezkoa litzateke horrelako proba bat antolatzea.

**Partaideen ikuspegitik, zer nolakoa izan zen lasterketa? Seinalizazioarekin, antolaketarekin pozik zeuden?**

Proba amaitu ostean, asebetetze-inkesta helarazi diegu partaide guztiei eta, orokorrean, lasterkari buruzko erantzun positiboak jaso ditugu.

Egon badira hobetzeko xehetasunak, ziur, eta horretan jarriko gara datozen edizioei begira.

**Kirol mailari, lehiari erreparatuta, zer nolako maila izan zuen lasterketak?**

Gizonezkoen podiumari erreparatuz gero, sekulakoa da maila. Joanes Goitisolok estatu mailan lasterketa asko irabazten ditu urte osoan. Mikel Arrasatek, iaz, Alpe d'Huez duatloia irabazi zuen eta Urko Herranek Europako eta mundu mailako probatan parte hartu du. Emakumezkoetan Maddi Markez izan zen irabazlea, Aitana Alonsorekin lehia estuan.

**Zein izan zen partaideen sentsazioa, proba amaitu berritan?**

Hotza. Hori da, gehienbat, aipatzen zutena. Zumeatarra elkarteari esker salda beroa zain zuten helmugan eta hori biziki eskertu zuten.

**Euriak, hotzak, haizeak... Zenbateraino baldintzatzen du lasterkari bakoitzaren errendimenduan?**

Aranaztegiko eremuan haizeak gogor jotzen zuela zioten. Eta horrek hotz sentsazioa areagotu zuen. Markari dagokionez, euriak nabarmen baldintzatzen du bizikleta gaineko proba arreta berezia eskaini behar delako bihurtu zuten.

**Antzeman dezaket erantzuna aurreko erantzunetan iradoki duzula: buruan al duzue bigarren edizioa antolatzea?**

Bai. Baietz esango nizuke. Bileran erabakiko dugu baina, printzipioz, bai.

**Hurrengo ediziorako irakaspenik atera al duzue? Aipatzeko modukoren bat bai?**

Galdera ona. Batez ere, egindako guztia idatziz jasotzea, datozen edizioei begira oso lagungarria izango baita. Eta, bestalde, ikuslegoari eskainitako eremua gehiago mugatzea hainbat eremutan. Bereziki, helmugan eta inguruetan.

**Sari berezia zegoen Otieta gaina azkarren igotzen zuenarentzat. Pozik zaudete ideiarekin?**

Bai. Pizgarria izan zen hainbaten zat.

**Eskerrak nori eman izango duzue. Nori eman eskerrak? Baliatu Aiurri eskaintzen dizun aukera.**

Lehenik eta behin, Andoaingo Udaleri eta LKS enpresari. Euren gabe ezinezkoa litzateke. Udal langileen laguntza ezinbestekoa izan zen. Gainerakoan, esker mila boluntarioei eta laguntzaile guztiei, sari-banaketan lagundu diguten babesle guztiei, Udaltzaingoiari eta, bereziki, Gonzalo Sukunzari, Zumeatarako zuzendaritza-taldeari proba egiteko ideia gauzatzen uzteagatik eta Zumeatarra elkarteari helmugan emandako laguntzagatik.

**Duatloian, han eta hemen, aritzen zara. Inbidiaz begiratuko zenien lasterkariei, akaso. Sentsazio hori izan zenuen?**

Bai, gainera, ibilbidea nire gogokoa zelako. Euria hasi zenean, aldiz, ez. Hotzari dagokionez, lasterka edo antolatzen, bietan nabaritu nukeen.

**Andoaingo Duatloian lanean arituz zinen besteek kirol-jardunaz gozatu ahal izateko. Hurrengo asteetan, bestaldean, kirolarien artean ariko zara. Zehazki zein probatan?**

Asteburu honetan Zuian parte hartuko dut eta hiru aste barru Araban ariko naiz. Handik astebetara, Zizurkilan amaiera emango diot duatloien denboraldiari.

**"LANTALDE FINKOA 6 LAGUNEK OSATZEN DUGU ETA, DENERA, BOLUNTARIOAK 80 IZAN DIRA"**

**MARTXOAK 22**  
**LARUNBATA**

16:30ETIK AURRERA  
**GALARRETA JAI ALAI**  
**HERNANI**

1. PARTIDA:  
**JABALERA • AZPIROZ vs SEGUROLA • MARTIRENA**

2. PARTIDA:  
**ANSA II • JUANENEA vs ALDABE • BARRENETXEA IV**

3. PARTIDA:  
**SUSPERREGI • APEZETXEA vs GOIKOETXEA V • GOIKOETXEA VI**

SARRERAK

BIZI ERREMONTEA

## Andoingo Lehen Duatloia



Arrasate (2), Goitisolo (1) eta Herran (3), helmuga zeharkatu ostean. AIURRI

**Goi mailako podiuma** Euskal Herriko duatelta onenak hurbildu ziren Andoainera. Gizonezkoen eta emakumezkoen partaidetza maila handia izan zen. Federatuez gain, gainerako kirolariek parte hartzeko aukera izan zuten. Proban, bide batez, kadete mailakoei eta beteranoei parte hartzeko aukera eman zitzaizen.



Euriarekin arriskua areagotu egin zen txirrindularientzat. AIURRI

**Boluntario askoren laguntzari esker** Sorosleak, Ertzaintza, Udaltzaingoa eta, bereziki, boluntarioak garrantzi handikoak izan ziren proba egin ahal izateko.

## SAILKAPENAK

### ANDOINGO LEHEN DUATLOIA

2025/03/15

### FEDERATU MAILA

#### PODIUMA, GIZONEZKOAK:

1. Joanes Goitisolo
2. Mikel Arrasate
3. Urko Herran

#### PODIUMA, EMAKUMEZKOAK:

1. Maddi Markez
2. Aitana Abalos
3. Irati Garaizabal

### FEDERATU GABEKOENA

#### PODIUMA, GIZONEZKOAK:

1. Xabi Intxausti
2. Peru Arregi
3. Jokin Lizeaga

1. andoaindarra:
- Imanol Usandizaga.

#### PODIUMA, EMAKUMEZKOAK:

1. Sara Larrinaga

### KADETEAK

#### PODIUMA, GIZONEZKOAK:

1. Oier Alba
2. Eñaut Zabala
3. Unai Zorriketa

#### PODIUMA, EMAKUMEZKOAK:

1. Maier Miota
2. Malen Arano
3. Garazi Alzola

### BETERANOAK

#### 1. MAILA, GIZONEZKOAK:

1. Aitor Regillaga

#### 1. MAILA, EMAKUMEZKOAK:

1. Olatz Korkostegi

#### 2. MAILA, GIZONEZKOAK:

1. Aitor Tejeria

#### 2. MAILA, EMAKUMEZKOAK:

1. Ainhoa Mendia

\*Iturria: Antolaketa.

## Play-offeko bidean dira, liderraren aurka galduta ere

Urnieta Artola Harategiaren esku dago Euskadiko txapelketarako igoera faserako sailkapena

### Erredakzioa URNIETA

Aurreko asteburuan, ezin izan dio Done Pedro Hondarribia Bidasoa liderrari irabazi Urnieta Artola Harategia taldeak, Lurraldeko 1. mailako senior mailako ligan. Norgehiagoka 20-23 galduta, hirugarren postutik laugarrenera jaitsi dira urnietarrak, lehiaketaren fase erregularra amaitzeko hiru partidaren faltan. Dena dela, hiru puntuko aldea ateratzen dio, oraindik orain, seigarren sailkatuari. Ondorioz, gorritxoan esku dago Euskadiko txapelketarako igoera fasea jokatzeko play off-a.

Hitzordua hasi bezala, aurrea hartu zuen kanpoko taldeak markagailuan, erasoan tratatuta eta defentsan desorekatuta aritu baitziren etxeokak. Minutuek aurrera egin ahala, ordea, norgehiagokari neurria hartu eta markagailua estutzea lortu zuten.

### Urnieta Guria Jatetxea

Zapore onarekin eman zion amaiera Urnieta Guria Jatetxea taldeak asteburuari, alde nabarmenez, 26-16 irabazi baitzion Egiako Kata Taberna taldeari, Lurraldeko 2. mailako seniorretan.

## Mariño garaitu zuen Euskaldunak, Ubitarten

Gorengo maila gori-gori dago ligaren 23. jardunaldira iritsita. Zazpi jardunaldi falta dira liga amaitzeko eta lehen lau postuen artean lehia bizia dago. Rotetak 15 garaipen lortu ditu eta 14na Euskaldunak eta Oriokok. Ez du inork etsi nahi eta lehia estu-estua da. Laugarren postuan dago, 12 garaipenekin, Santo Tomas Lizeoa.

### Bigarren partida, jarraian, Ubitarte zelaian

Euskaldunak larunbat honetan Amara Berriren aurka jokatu du, arratsaldeko 17:15etan hasita. Azken aurreko postuan sailkatuta dago Amara Berri eta, aurrez, hiru puntu gehiago lortzeko aukera izan dezakete Gaztañagaren mutilek. Hori bai, partida jokatu beharra dago horixe baita hiru puntuak ziurtatzeko modua.

## Leizaran Lanbroak Allurralden jokatu du, larunbatean

Euskadiko Senior Emakumezkoen txapelketa 19. jardunaldira iritsi da. Liga amaitzeko, beraz, 3 jardunaldi baino ez dira geratzen. Larunbat honetan Allurralde kiroldegian partida dute ME Eibar eskubaloia B taldearen aurka. 16:30ean hasiko da partida. Une honetan andoaindarrek 5. postuan sailkatuta daude 21 punturekin. Laugarrena puntu bakarrera dago. Aurreko asteburuan Kukullaga Etxebarri taldearen kantzaxan 26-26 berdindu zuten.

**BATXILERGOA  
AURREMATRIKULAZIOA**

MARTXOAREN 31TIK APIRILAREN 11RA

IKASBIDEAK ELKARREKIN ERAIKITZEN!

**ATE IREKIAK**  
MARTXOAK 24 - 18:00

**Batxilergoko modalitateak:**

- Zientzia eta Teknologia
- Giza eta Gizarte Zientziak
- Orokorra

943 89 95 10 | institutua@hernanibhi.eus | hernanibhi.eus

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## ERAKUSKETA

**ANDOAIN Langara**

Futbolari ezaguna ardatz hartuta.  
*Bastero. Erakusketa-gela.*  
Azken eguna: *Martxoak 22.*

## LEHIAKETA

**ANDOAIN Argazki-lehiaketa**

Inauterietako argazki-lehiaketa izena emateko epea ixtear da.  
Oinarriak Andoain.eus webgunean.  
Azken eguna: *Martxoak 24.*

## BERTSOLARITZA

**URNIETA Bertso-afaria**

Eli Pagola eta Unai Gaztelumendi,  
Aiurrik eta Gaztetxeak antolaturiko  
saioan. Amaitu da txartelak  
erosteko epea.

*Martxoak 21, ostirala.*  
*Altuna Sagardotegia.*

## ANTZERKIA

**URNIETA Barrexerka**

"Nahastumbury": Umorezko  
esketxak eta antzerkiak uztartzen  
dituen ordubeteko emanaldia.

*Martxoak 23, igandea.*  
*19:00, Sarobe. 7 euro.*

**ANDOAIN Evaren alabak**

"Ring" antzezlana.  
*Martxoak 29, larunbata.*  
*18:00, Bastero.*

**ANDOAIN Gorakada taldea**

"Moko", Bilintxen bizitzan  
oinarrituriko istorioa.  
*Martxoak 30, igandea.*  
*12:00, Bastero. 4 euro.*

## JARDUNALDIAK

**ANDOAIN ZEOS Programa**

"Zentuzko erabilera eta osasuna  
saretzen", Altxa Buruaren eskutik:  
"Nerabezaroan barrena"  
*Martxoak 24, astelehena.*  
*17:30-19:30, Bastero Kulturunea.*

"Sare sozialen arriskua eta erabilera":  
*Martxoak 25, asteartea.*  
*16:00-18:00, Bastero Kulturunea.*



Haatik Dantza Konpainiaren ikuskizuna. AIURRI

**ANDOAIN "OTS" Haatik Dantza Konpainia**

"Herri Gogoa" Euskal Herriko lehen zigilu diskografikoari buruzko istorioa  
oholtzaratuko du Haatik dantza-konpainiak Bastero Kulturunean, "Ots"  
ikuskizunarekin. Urnietan egin zuten aurre-estrenaldia.  
*Martxoak 21, ostirala. 19:30, Bastero Kulturunea.*



Bazkardoko eremua.

**ANDOAIN AURKEZPENA, A15 ETA N1 ARTEKO LOTUNEA HIZPIDE HARTUTA**

N1 eta A15 errepideen arteko lotuneari dagokionez, Udalak bi egitasmoen  
arteko alderaketa egin du. Txostena landu duen enpresak egingo du  
jendaurreko aurkezpena, ekitaldi irekian.  
*Martxoak 25, asteartea. 19:00, Bastero Kulturunea.*

**ANDOAIN Lumakada Eguna**

Buruntzaldeko transmaribollo  
sareak Lumakadaka Eguna antolatuta  
du. Goizean hasita eta ordu  
txikieta bitarte, askotariko  
hitzorduak izango dira Andoainen.  
*Martxoak 29, larunbata.*  
*Egun osoko ospakizuna.*  
*Udalerría eta Gaztetxea.*

## MUSIKA

**ANDOAIN Ainara Ortega**

Jazz estiloko kontzertua eskainiko  
du kantariak Joaquin Chacon jazz  
bikoteak lagunduta.  
*Martxoak 28, ostirala.*  
*19:30, Bastero Kulturunea.*

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Lee Miller**

*Martxoak 22, larunbata. 19:30.*  
*Martxoak 23, igandea. 19:30.*  
*Martxoak 24, astl. 17:00, 19:30.*

**Los aitas**

*Martxoak 29, larunbata. 19:30.*  
*Martxoak 30, igandea. 19:30.*  
*Martxoak 31, astelehena. 17:00, 19:30.*



## SINOPSIS

**Lee Miller**

**Zuzendaria:** Ellen Kuras. **Aktoreak:** Kate Winslet, Josh O'Connor, Andrea Riseborough, Andy Samberg, Alexander Skarsgård, Marion Cotillard, Noémie Merlant... **Herrialdea:** Britainia Handia. **Urtea:** 2023. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 116 m.

**Gerrako argazkilariaren historia**

Elizabeth Lee Miller argazkilariaren istorioa, Bigarren Mundu Gerran ospetsu bihurtu zena. Ogibidez, Vogue aldizkarirako modeloen argazkilaria zen. Baina Bigarren Mundu Gerran frontera joateko erabakia hartu zuen.



## ELIKAGAIK



**AiurriKIDE batek  
ERRIGORAKO saskia  
eskuratuko du**

**Irabazlea:  
Haize Lasa Elizagarate**

**Zorionak!**

Zozketa

## Mugikorren erabilera goiztiarra aztergai, Bastero Kulturgunean

Udalak eta Altxa Buruak elkar-lanean, lau saioko zikloa antolatatu dute. Gurasoei zuzendutako hitzaldi hauek Maitane Ormazabal eta Telmo Lazkano psikologoek emango dituzte. Lehen txanpa aurreko astean izan zen, datorren astean, bigarrena.

### Martxoak 24, astelehena:

"Nerabezaroan barrena: beldurrak, balioak, autoestimua eta identitate eraikieraren garrantzia".

17:30-19:30, Bastero.

### Martxoak 25, asteartea:

"Sare sozialen arrisku eta erabilera formazioa".

16:00-18:00, Urigain kultur etxea.

Altxa Burua guraso-talde baten ekimenez sortu zen Euskal Herrian, mugikorren erabilerak haurrengan zuen eraginez kezkatuta. Egunotan, Aiztondoko eta Andoingo guraso talde baten ekimenez, formakuntza saioak izan dira.

## Hitzaldia Irunberri elkartearen, ostiral honetan

Josebe Iturriozek "Feminismorik ez trans-ik gabe" izeneko hitzaldia emango du Irunberri elkartearen, arratsaldeko 18:30ean hasita. Filosofian lizentziatua da (EHUko Donostiako fakultatea) eta Berdintasun Masterra egin ostean, Tolosan zappi urtez aritu zen Berdintasun teknikari lanetan, eta, beste bi urtez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasunerako Zuzendaritzan, aholkulari moduan. Eskola publikoan filosofia irakasle lanetan ari da, egun.



Josebe Iturrioz. WIKIOEDIA

## Black Smoke taldearen kontzertua, larunbat honetan

Andoingo Black Smoke taldeak kontzertua emango du larunbat honetan, 19:30ean hasita, Irunberri. Eguraldi onarekin tabernaren kanpoaldean izango da. Txarra balitz, barrualdean. Taldea 2023an sortu zen eta honako hiru musikariek osatzen dute: Oskar Perales (ahotsa eta gitarra), Iker Torre (bajua) eta Antonio Calleja (bateria).



Black Smoke taldea. AIURRI



Komun publikoa. UDALA

## Berrasoetako komun publikoa, zabalik, herritarrentzat

Berrasoetako komun publikoa herritarren eskura dago, aurreko astean hasita. Instalazio-lanak amaitu ostean, beraz, erabilera publikoa izango du. Erabilgarria da, beraz, inguruan dabiltzan familientzat eta joan-etorrian pasieran dabiltzanentzat. Herritarrek partaidetzazko aurrekontu irekien prozesuan aukeratu zuten proiektuetako bat dela gogorarazi du Urnietako Udalak.

## Mus-txapelketa Irunberri elkartearen, apirilaren 5ean

Arratsaldeko 16:30ean hasita, mus-txapelketa izango da Andoingo elkartearen. Izen-ematea tabernan bertan egin daiteke, bikoteko 15 euro ordainduta. Gehienez ere 22 bikote onartuko dira. Finalistek saria jasoko dute.

## MERKATU TXIKIA

### TXIMINIAREN

#### GARBIKETA

Su baju eta ekonomikoen garbiketa. Julen: 610 628 848

Emakumeentzako txirrinda. 60 euro. Harremanetarako: Pili: 610 953 258.

### ZEINU HIZKUNTZA

Zeinu hizkuntza praktikatzeko pertsonen bila nabil. Gorra badira hobeto! 650 341 108.

Bi ohe artikulatu salgai, koltxoi eta somierrak barne. Berri-berriak. 664 462 517.

### SALMENTAK

Edariak hozteko hozkailu txikia. Neurriak: zabalera 0,48, sakonera 0,44 eta altuera 0,63. Prezioa 55 euro. Pili: 610 953 258.

### MERKATU TXIKIAN IRAGARRI NAHI DUZU?

Bidali mezu bat diseinua@aiurri.eus helbidera edota whatsapppe: 619 163 537



## MANEX UGARTE EGAÑA

- **Herria:** Donostia (Antigua auzoa)
- **Ikasketak:** Jakintza ikastetxean eta Luberrri Institutuan
- **Gradua:** Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoa
- **Zaletasunak:** eskalada, mendia, argazkilaritza

[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)



## "Eredu DUALak lan munduak nola funtzionatzen duen ikusteko lagundu dit"

### Zergatik aukeratu zenuen Industriari Aplikatutako Ingeniaritza Fisikoa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Beti gustatu izan zait zientzien mundua, batez ere fisikari dagokiona. Honek nire ikasketak gai horren inguruan egitera bideratu ninduen. Mondragon Unibertsitateak ematen zion ikuspuntu praktikoa gustatu zitzaidan.

### Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arte bizitako esperientzia positiboa izan da. Gradu honen indarguneetako bat fisikaren eta ingeniartzaren adar asko ikusten dituzula da, eta horrek oso interesgarria egiten du. Horrela, zertan espezializatu nahi duzun jakin dezakezu.

### Nola definituko zenuke jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Azterketaz gain, taldeko lanek ere nahiko

garrantzia dute gradu honetan. Horrek taldean lan egitera behartzen zaitu, akademikoak ez diren gaitasunak landuz.

### Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?

Gehien gustatu zaidana, lehen aipatu dudana bezala, fisikaren hainbat atal ikastea da. Nahiz eta agian ez sakondu guztiz, ideia on bat hartzen duzu adar bakoitzari buruz, gero zure gustukoena hautatzeko eta horretan espezializatzeko. Gutxiengustatu zaidana proiektu batzuk astunak direla, eta ebaluazio jarraituak ikasketak egunean eramatera behartzen zaituela.

### Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, DUAL ereduaren non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzun?

Unibertsitatean bertan Adimen Artifizialaren saillean egiten dut lan, zehazki Ikasketa Indartuari

(Reinforcement Learning) buruz ikertzen. Adimen Artifizial hau industriari aplikatzea dugu helburu, orain arte dauden teknikak hobetuz. Lana, batez ere, algoritmoak eta ikerketak ulertzea da, eta programatzea.

### Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Lan munduak nola funtzionatzen duen ikusteko lagundu dit. Honek etorkizunean zein bide jarraituko dudana erabakitzen lagunduko dit, seguru nago. Gainera gustatzen zaidan gai bati buruz ari naiz ikasten, dirua irabazten dudana bitartean.

### Etorkizunari begira zein dira zure asmoak?

Hurrengo urtean Erasmus programan parte hartuko dut, gradu bukaerako lana kanpoan egiteko. Hori bukatutakoan egia esan ez daukat guztiz argi zer egingo dudana, baina badakit Adimen Artifizialaren inguruan izango dela.



Maria Muro Vaquero, Mikelsa, Kaia Gines Jauregui, Alba Quel Moreira, Irati Etxeberria Lasa, Irati de Torres Bilbao, Ane Elustondo Esteban eta Ihintza Manterola Garmendia. AIURRI

# “Dantza herrira zabaltzea da asmoa, gazteentzat eskura egon dadin”

## URNIETAKO GAZTEEN DANTZA-TALDEA URNIETA

Azaroan ekin zion bideari Urnietako gazteen dantza-taldeak, aspaldi utzitako zaletasunari bide emateko. Askotariko adineko gazteak biltzen ditu taldeak

### Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Dantzara itzultzeko grinak elkartu zituen orain hilabete batzuk zortzi lagun. Bada, nor bere motibaziotik, berriro ere, asterokotasunez, biltzeari ekin zioten

azaroan, duela urte batzuk ikasitako pausoei, elkarrekin, hautsa kentzeko asmoz, Edu Muruamendiarazen gidaritzapean. Beren arteko harremana estutzeko aitzakia ere eman die tal-

deak eta, gazteen artean dantza-zaletasuna herrira zabaltzeko bidean, entseguko ateak irekita dituzte batu nahi duen ororentzat. **Berriro ere dantzan aritzeko gogoak eraman al zaituzte taldea sortzera?**

“Aldi joana ez da itzultzen” esango lukete gure aitona-amonek! Gehienon buruan aspalditik zarata eragiten zuen gaia zen dantzatzeraz itzultzearena, eta, egun batean, konturatu ginen askok genuela ezinegon pertsonal hori: Aukeran Dantza Taldeak “Aiurri” kale-ikuskizuna egin zuen Donostian “Iturritik 2024” dantza jaialdiaren programazioaren barruan. Egun hartan, dantza-lekuaren inguruan, dantza-kide ohi asko geundela ohartu ginen, eta parada izan genuen dantzara itzultzeko grina elkarbanatzeko. Une horretatik aurrera, nahiko azkar kudeatu genuen itzulera. Azken urteetan dantza uzten joan izan diren beste gazte batzuei gure asmoa plazaratu, eta dantza berrartzeko taldetxo bat eratu genuen. Edu Muruamendiarazi aipatu genion gure asmoa, eta besoak zabalik jaso zuen proposamena.

### Zenbat kide zarete taldean? Zein adin tartekoak?

Guztira, zortzi lagun gara, eta den-denak gaude hasieratik. 1996-2006 urte bitarteko kideak elkar-tzen gara taldean. Hala ere, gal-

dera jaso aurretik ez geunden horrekin, belaunaldien arteko distantziarekin jabetuta! Familia-giroa daukagu, lagun artekoa, ez zaigu batere arraroa egiten hamar urteko tartea duen talde-kidearekin berdinen arteko harremana garatzea.

### Herritarren artean harremana estutzeko aitzakia ere eman dizue dantzak.

Oso aukera polita izan da Urnietako adin eta kuadrilla desberdinetako kideak dantzeren bueltan batzeko, belaunaldien arteko harremana sendotzeko eta herrian orain arte izan ez dugun espazioa sortzeko. Denok dugu gustuko dantzan aritzea eta horrek batzen gaitu: berdin zaigu laguna den, lagunena laguna, edo bere berri dantza taldean izan dugun.

### Zenbateko maiztasunez biltzen zarete?

Azaroan hasi ginen dantzaten eta, astean behin, astearteetan, bi orduz egoten gara dantzan, 18:30-20:30 artean. Beste egun batean ere elkartzen hastea da gure asmoa, gutxinaka, taldea egonkortu eta gauza berriak sortzen hasteko.

### Zein oinarri ditu zuen sorkuntzak? Tradizioa eta garaikidetasuna uztertzen al dituzue?

Gaur gaurkoz Egape Dantza Taldeetik gatz gehienak eta lerro bera jarraitzen dugu. Euskal dantza tradizionala kutsu garaikideko mugimenduekin nahasten dugu. Urte asko eman ditugu dantzan eta ikasitako guztiari hautsa kentzen gabilta. Guztioi eroso zaigun espazioa sortu nahi dugu, eta erabilitako diziplinak ere helburu hori lortzeko bidean daude lerratuta.

### Orain gutxi deialdia zabaldu zenuten, jende berria batu dadin. Edozein hurbil daiteke edo gutxieneko oinarria behar da?

Dantza herrira zabaltzea da asmoa, kalera, inguruko gazteentzat eskura egon dadin: euskal dantzaren kultura hedatu eta kalera eraman nahi dugu. Horretarako, soilik, gogoak behar dira. Ilusio handia egingo liguke dantzaten ikasi nahi duenarekin gure pasioa elkarbanatzea.

### Aurrera begira jarrita, oholta gainera igotzeko tartea hartuko al duzue, landutakoa erakusteko asmoz?

Ez dugu aukera hori alboratzen, guri ere motibazioa sortzen baitigu berriro ere kalera ateratzek. Politza izango da hilabete haue-tako lana ingurukoei erakustea.